

Bizkaia

Areatza

HILTEGIA MATADERO



Areatzako hiltegia 1888an eraiki zuten, udalerriko alde zaharreko behealdean kokatutako orube batean. Hiltegiaren eraikuntza garai hartako politika higienisten baitan kokatu behar da. Politika haiek ur-deposituak, hiltegiak eta tankerako zerbitzu publikoak emateko ekipamenduak sustatu zituzten, eta XIX. mende bukaerako zein XX. mende hasierako arkitekturaren eragin nabarmena izan zuten. Areatzako hiltegiak jatorrizko funtzioa bete zuten 1970eko hamarkada arte; gaur egun, ordea, udal-gordetegia da.

Bere ezaugarri arkitektonikoetan, formari eta eraikuntza teknikari dagokienez, XIX. mendeko neoklasizismoaren korronteen eragina nabari da. Oinplano angeluzuzeneko eraikin honek lau isurialdeko teilatua du; pendoloidun egurrezko zertxen gainean ipinitako teila arabiarrez estalita dago. Buelta guztiko murrak harlangaitzez eginak daude, kanpoaldean hondoratuta eta barnealdean zarpiatuta eta igeltsuztatuta. Zorua harrizko harlauzaz eginda dago, eta sabaian zertxak agerian daude. Fatxada nagusian sarbide bat dago harlanduzko dobelak dituen zirkulu erdiko arku batekin eta, goiko aldean, burudun hiru bao-ardatz etzan ageri dira. Atzeko fatxadan beste hiru bao termal daude, hiltegiaren ohikoa den bezala; alde motzenetan, berriz, burudun hutsarte bana, barrualdea argiztatzeko. Aurrealdean, sarreraren gainean, metalezko plaka batean hiltegia eraiki zuten urtea ageri da: «MATADERO DE VILLARO. AÑO 1888». Monumentu izendatu zuten 1996an.

El matadero de Areatza fue construido en 1888, en un solar situado en la parte baja del casco antiguo de la localidad. Su construcción se encuadra dentro de las políticas higienistas propias de la época, políticas que impulsaron la creación de dotaciones de servicios como depósitos de agua y mataderos, y que tuvieron una nada despreciable influencia en la arquitectura de finales del siglo XIX y principios del XX. El matadero de Areatza mantuvo su función original hasta la década de 1970 y en la actualidad ha modificado su uso y se dedica a almacén municipal.

Sus características arquitectónicas participan en sus aspectos formales y constructivos de las corrientes del neoclasicismo decimonónico. Es un edificio de planta rectangular que se cubre a cuatro vertientes, con teja árabe sobre cerchas de madera con pendolón entablillado. Los muros perimetrales se construyen en mampostería rehundida en el exterior, y enfoscada y enlucida en el interior. Los suelos son de losa de piedra y los techos presentan cercha vista. La fachada principal cuenta con acceso en arco de medio punto dovelado con sillares y tres ejes de vanos adintelados y apaisados en la parte superior. Otros tres vanos terminales, habituales en los mataderos, se abren en la fachada trasera y, en los lados más cortos, un hueco adintelado por lado ilumina el inmueble. Una placa metálica en la fachada delantera, sobre el acceso, indica la fecha de construcción del matadero: «MATADERO DE VILLARO. AÑO 1888». Fue declarado monumento en 1996.